



GOMENDIOAK,
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILARENAK,
BURUAN ZAPIA ERABILTZEARI BURUZKOAK.

Euskal hezkuntza-sistemak, Europako hezkuntza-sistemen moduan, lanean dihardu kompetentzien bidezko hezkuntzaren planteamenduari hezkuntza-erantzun egokienak emateko, ikasleek oinarrizko kompetentziak edo kompetentzia gakoak gara ditzaten, eta, horrela, belaunaldi berriak ondo prestatuta egon daitezen helduarorako. Horretarako, bizialdi osorako oinarri sendoak ezarri behar dira, ikasleak gai izan daitezen beren bizitzak zentzuz gidatzeko, beren helburuak hautatzeko, beren erabakien ardura har dezaten, bere gain har dezaten beren egungo eta etorkizuneko premien ardura eta pertsonen zaintza, eta gizartean aktiboki, kritikoki eta erantzukizunez parte har dezaten.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ikasleek beren burua prestatu behar dute, eta oinarrizko kompetentziak lortu behar dituzte, gero eta globalizatuagoa eta interdependenteagoa den mundu honetan bizitzeko. Bistakoa da, halaber, oinarrizko premia komun horiei emandako erantzun kulturalak askotarikoak izan direla, eta hala direla oraindik ere. Garrantzitsua da gizakien premiak antzekoak direla jabetzea, denok parekoak garela ohartzeko. Bestalde, komeni da jakitea kultura bakoitzak zer erantzun ematen dien premia horiei, etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta beste kultura batzuen ekarpenak balioetsi edo onesteko, kultura-artekotasunaren eta kultura-inklusioren bidez, kulturen arteko errespetua eta elkarrizketa sustatu asmoz.

Hezkuntza inklusiboak aniztasunaren adierazpen guztiak hartzen ditu aintzat ikasgeletan: hizkuntza, kultura, gaitasunak, sexu-orientazioa, generoa eta baliabide sozioekonomikoak.

Eskola inklusiboan, haur eta gazte guztiek jasotzen dute hezkuntza; ez nolana hiko hezkuntza, kalitatezkoa baizik: guztiei aukera berdina ematen dizkiena, justua eta bidezkoa. Eskola inklusiboak garapen akademikorako eta pertsonalerako behar duten beste aukera eta laguntza eskaini behar dizkie ikasle guztiei, Oinarrizko Hezkuntzarako aurreikusitako helburuak lortzeko. Pertsonen egokitutako testuingurua sortu behar da, desberdintasunei erantzuneko diena eta talderik edo pertsonarik ahulenei babes eta laguntza espezifikoak emango dizkiena.

Gizarteak —eta, haren barruan, derrigorrezko eskolak— inklusioren bidez erantzun behar dio aniztasunari. Heziketaren ardura, orain arte, ikaslea zuzenean artatzen duen profesionalaren esku soilik egon da; orain, berriz, komunitate osoak du heziketaren erantzukizuna.

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri zuen. Dekretu horren bidez, hain zuzen ere, oinarrizko kompetentzien planteamenduan sakondu nahi da, 2020 Heziberri Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren arabera eta 2020 Europako Esparruarekin bat etorritik, eta oinarrizko kompetentzia transbertsal hauek ezarri dira:



- a) *Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia:* modu osagarrian erabiltzea hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala, egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko.
- b) *Ikasten ikasteko eta pentsatzeko konpetentzia:* ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatu ahal izateko.
- c) *Elkarrekin bizitzeko konpetentzia:* pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion onerako.
- d) *Ekimenerako eta ekintzaitasunerako konpetentzia:* ekimena izatea eta testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea, ideiak ekintza bihurtu ahal izateko.
- e) *Izaten ikasteko konpetentzia:* bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haien sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, hori lagungarri izaten baita pertsona osorik errealizatzeko, etengabeko hobekuntzaren bidez.

Aipatu dekretuak, eskola inklusiboaren hezkuntza-ereduaren esparrua definitzeaz gainera, eredia ikastetxe bakoitzera eta ikasleen ezaugarrietara egokitzea jasotzen du. Hezkuntza-eredua ikastetxeen eta ikasleen ezaugarrietara egokitzeko, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua dauka ikastetxe bakoitzak, bai eta tutoretza, orientazioa eta aniztasunarekiko arreta ere.

Beharrezkoa da autonomia izatea ikastetxeko Hezkuntza Proiektua inguruko ezaugarrien arabera erabakitzeko, baina ikastetxea hezkuntza-sistema baten barnean dago, eta modu interdependentean funtzionatzen du. Ikastetxe bakoitzak autonomia izan behar du, baina, aldi berean, interakzioan dago, eta hezkuntza-sistema osorako adostutako helburu komunak erdiesten parte hartu behar du.

Horregatik, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektutik abiatutik, ikastetxeek hezkuntza-konpromisoak sustatu behar dituzte familien edo legezko tutoreen eta ikastetxeen artean, eta horietan jasoko dira familiak, irakasleak eta ikasleak zer jarduera egitera konprometitzen diren, hezkuntza-etapa bakoitzeko helburuak eta oinarriko konpetentziak lortzeko.

Konpromiso horien artean alderdi hauek jaso behar dira, gutxienez: ikastetxeko hezkuntza-printzipioak onartzea, familiaren ideologia eta morala errespetatzea legetan ezarritako hezkuntza-printzipioen eta -balioen arabera, ikasleen bilakaeraren jarraipena egitea, bizikidetzaren arloko neurriak hartzea, eta ikastetxearen eta familiaren artean harremanak egotea.

Hezkuntza-konpromiso horiek ikastetxeko zuzendaritza-taldeak prestatuko ditu, eta Eskola Kontseiluak onartu eta ebaluatuko ditu, edo, bestela, Ordezkaritza Organo Gorenak. Beste konpromiso espezifiko batzuk ere sar daitezke; sartuz gero, aldizka



berrikusiko dira, ikastetxeak erabakitako baldintzetan eta epeetan. Hau da, ikastetxeek eta familiek, banaka, hasierako konpromisoak ikuskatu eta haiek aldatzeko akordioak lor ditzakete, ikaslearen hezkuntza- edo bizikidetzaren prozesua hobetzeko edo ikasleren bati hautemandako arazoak konpontzeko. Baina ikasleek ere parte hartu behar dute akordio horietan.

Egindako ohar guztiak kontuan hartuta, eta eskola inklusiboaren eta aniztasunari arreta ematearen hezkuntza-esparru pedagogiko berriaren testuinguruan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak komenigarritzat jo du buruan zapia erabiltzeari buruzko gomendio hauek bidaltzea EAEko ikastetxeetako hezkuntza-komunitateetara:

1. Ez galarazi buruan zapia daramaten nesken eskolatzea. Eta hori galarazten duten hezkuntza-proiektuak edo antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak dituzten ikastetxeek berrikus ditzatela horiek, hezkuntza inklusiboaren eta aniztasunari arreta ematearen planteamenduan oinarrituta, 236/2015 Dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, xedatu bezala.
2. Ikastetxearen antolamendu- eta funtzionamendu-araudietan eta hezkuntza-proiektuetan, hezkuntzaren arloko konpromisoak sustatu familien edo legezko tutoreen eta ikastetxeen artean. Konpromiso horietan jasoko dira familiek, irakasleek eta ikasleek zer konpromiso hartzen dituzten curriculum-dekretuetan hezkuntza-etapa bakoitzerako ezarritako helburuak eta oinarrizko kompetentziak lortzeko, eta, horrela, ikasleek bizialdi osorako oinarri sendoak lor ditzaten, gai izan daitezten beren bizitzak zentzuz gidatzeko eta beren helburuak hautatzeko, beren erabakien ardura har dezaten, eta gizartean aktiboki, kritikoki eta erantzukizunez parte har dezaten.

Gomendio horiek Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia prestatzeko gidaliburuan jasoko dira. Saila ari da gidaliburu hori egokitzen, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duen 236/2015 Dekretua kontuan hartuta, ikastetxeek beren araudiak eguneratu ahal ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 6a.